




## **Funtsezko baliabideak:**

Funtsezko baliabideen bitartez gure proiektuaren balorezko proposamena garatu, bezeroengana iritsi, bezeroekiko harremana mantendu eta azkenik diru sarrerak lortu ahal izango ditugu. Honako hauek izango dira gure proiektuan erabiliko ditugunak:

- **Giza-baliabideak:**  
Proiektuak aurrera egiteko, oso garrantzitsua izango dugu informatikarako eta aplikazioa diseinatzeko ezagutza handia izatea, emaitza onak nahi ditugunez. Gainera lehen esan bezala, bezeroekin harreman ona izan nahi dugu, beraz komunikazio arloan erraztasunak ere ahalbidetuko ditugu. Honek gure produktu eta zerbitzuak gorenean mantentzea erraztuko baitigu.



- **Baliabide-fisikoak:**  
Gure proiektuan erabiliko dugun baliabide fisikoa eta baliabiderik garrantzitsuena ordenagailua izango da, ordenagailua beharko baitugu gure app-a diseinatzeko eta proiektua aurrera eramateko. Beste baliabide garrantzitsu bat lokala izango da, bertan gure aplikazioaren funtzionamendua kontrolatu; bizikletak erreparatu eta gorde eta osagarriak saldu ahal izango dugu. Gainera, hori izango da xede gisa erabiliko dugun lekua. Beste alde batetik, lokalean, lehenago esan bezala, osagarriak salduko ditugu, baina osagarri horiek ez ditugu guk sortuko beraz ez dugu beste inolako baliabiderik behar kasu horretan.



- **Baliabide intelektualak:**  
Gure proiektuak ez du inolako markarik izango, baina app-ean adibidez, bai agertuko direla egileen eskubideak.